

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko uztailaren 28ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Foru dekretua:**

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2020 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Onestea uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren aldaketa.

– **Erabakiak:**

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 352/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Arabako enpresetan kontratazioa sustatzeko laguntzen 2020ko ekitaldirako deialdia onestea.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 353/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea konpromiso kreditua 2021. urtealditik 2022. urtealdira birbanatzeko 17/2020 espedienteari, 40.000,00 euroan, gastuen egoerako "DEI korporatiboa. Georabara proiektuak" partidan, hala eskatu baitu Ingurumen eta Hirigintza Sailak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 354/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea kreditu transferentzien zenbait espedienteri, Covid-19aren ondoriozko "A Plana"ri –Arabako Ekonomia Suspertzeko Plana– buruzkoak, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 355/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea kreditu transferentziaren 71/2020 espedienteari, 1.473.500,00 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Jaiotza tasak sustatzeko laguntzak 2019" partida sortu berria, Gizarte Politiken Sailak hala eskatuta.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 356/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntza lerroari, obra txikiak gauzatzeko 2021eko programaren barruan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 357/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntza lerroari, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2021eko programaren barruan.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 358/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko 2019ko deialdiko laguntzen barruan Armendekia sozietate kooperatibo txikiari emandako epea luzatzeari, esnetarako behien nabea eraikitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 359/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea "Arabako Lurralde Historikokoan baso suteen aurkako babes azpiegiturak (EGEF) egokitzeko eta baso suteak geldiarazi eta itzaltzeko lanak gauzatzeko makineriaren kontratua" 2021eko abuztuaren 1era arte luzatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 360/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea enpresa plana aldatzeko eta nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzen epea luzatzeko, azaroaren 15eko 761/2016 Erabakiak onetsitako deialdi ebazpenaren onuradun bati (07-16-24/001).

Foru Gobernu Kontseiluaren 361/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea enpresa plana aldatzeko eta nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzen epea luzatzeko, irailaren 12ko 510/2017 Erabakiak onetsitako deialdi ebazpenaren onuradun bati (04-17-22).

Foru Gobernu Kontseiluaren 362/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea enpresa plana aldatzeko eta nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzen epea luzatzeko, azaroaren 15eko 761/2016 Erabakiak onetsitako deialdi ebazpenaren onuradun bati (03-16-05).

Foru Gobernu Kontseiluaren 363/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea enpresa plana aldatzeko eta nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzen epea luzatzeko, uztailaren 3ko 360/2018 Erabakiak onetsitako deialdi ebazpenaren onuradun bati (06-18-05).

Foru Gobernu Kontseiluaren 364/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea enpresa plana aldatzeko eta nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzen epea luzatzeko, uztailaren 3ko 360/2018 Erabakiak onetsitako deialdi ebazpenaren onuradun bati (06-18-04).

Foru Gobernu Kontseiluaren 365/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea enpresa plana aldatzeko eta nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzen epea luzatzeko, uztailaren 3ko 360/2018 Erabakiak onetsitako deialdi ebazpenaren onuradun bati (04-18-12).

#### KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 366/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabea eta Covid-19ak kaltetutako kultura eta sormen sektorearen susperraldi ekonomikorako aparteko laguntzen deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 367/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Covid-19ak kaltetutako kirol klub eta elkarteak mantentzen laguntzeko dirulaguntza deialdiari.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 368/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Dulantziko 1 poligonoko 1262 lurzatia Vodafone España SAU enpresak modu pribatiboan erabiltzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 369/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea dirulaguntza hauen ebazpenari, zeinen lehenengo emakida baita: abenduaren 27ko 61/2019 Foru Dekretuaren bidez egindako deialdian hirigintzako planeamenduko agiriak eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuak idazteko ordainsariak finantzatzeko dirulaguntzak.